

«Ez naiz teilatuan ikurrin bat duen unibertsitatearen aldekoa»

JEAN MICHEL UHALDEBORDA Paue eta Aturri Aldeko Herrietako Unibertsitateko presidentea

Baliabideak emendatu eta ikasketa motak ugaltzearen ondorioz Baionako unibertsitateak ikasleak irabazi eta Pauekoak galdu egin dituela dio Uhaldeborda.

AITOR RENTERIA

Baiona

Baiona Ttipiko Sokagileen karrikan hazia, poztasunez ikusten du datorren urtean auzotegi horretan irekitzea unibertsitatea. Ez da Baionan berezko unibertsitatea egitearen aldekoa, eta prestakuntza bereziak indartu nahi ditu, baliabide gehiago erakarriz Baionako Unibertsitate. Ez du bideonez ikusten campusa Baiona, Angelu eta Bidarte artean (Lapurdi) barreiatzea.

Baionako Unibertsitatea Pauekoaren adarra da. Pauek ikasleak galtzen ditu, eta Baionak, aldiz, irabazten ditu. Eman dezakezu horren arrazoiak?

Lehenik zehaztu nahi nuke Paueko eta Aturri Aldeko Herrietako Unibertsitatea dela izen ofiziala, Paue eta Baionaz gain, Mont-de-Marsan (Landak) eta Tarbe (Pirinio Garaiak) gure unibertsitatearen eremuan daudelako. Eta galea badago: 1970ean Paueko Unibertsitateak 14.000 ikasle zituen. Garai hartan biziki arin garatzen ziren unibertsitateak. Pauek 11.000 ikasle inguru zituen eta egun 8.500 ditu. Aldi berean, Baionak 2.000 ikasle zituen eta egun 2.500. Pauen ikasketa klasikoak daude, eta Baionan bertze ikasketa batzuk jarri dira indarrean.

Zehazte aldera, zein dira aipatzen dituzun sailak?

Zientzia arloko ikasketa klasikoak daude Pauen, alegia, Matematika, Fisika, Kimika, Biologia. Frantzia osoan egin dute behera eta gure unibertsitatean ere bai. Letretan gauza bera gertatzen da, literatura arloan bereziki. Egia da Pauek gehiago sufritu duela, gaur egun funtsezkoa delako barnerrazteaz ikerketa eta lan munduarekiko harremana. Hiri handiek erakargarritasun handia daukate. Hara joateko gogoak daukate eta eskaintza zabalagoa da.

Denak ez doaz gogotsu, batzuk beharturik, hemen ez dagoelako nahi duten prestakuntza.

Egia da hori ere. Baina eredu unibertsalaz ari naiz. Medikuntza ikasketarik ez dago Baionan; beraz, ikasleek joan egin behar dute. Argi dago dirua duen pertsona ba-

tek nahi duen lekuan egin ditzakeela ikasketak.

Nolako aurrekontua behar du ikasketak kanpoan egin nahi dituen ikasle batek?

Bada, hilerio 1.000 eta 1.200 euro artean, bederen. Laguntzak 300 eurokoak dira gehienik. Baionako Unibertsitateak argibide handia ematen du, ikasleen %35k diru laguntzak dituelako. Baionak kanpoko jendea erakartzen du, Akizetik eta Mont-de-Marsandik, Landetatik oro har. Medikuntza itzuliz, Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez du inoiz onartu nahi izan plantan ematea prestakuntza. Gauzak aldatzen ari dira orain. Sail anitzetako unibertsitatea da Baionakoa. Adibidez, prestakuntza luzeak egiten dira orain, ikasle gutxiarekin. Nire borrorak irizpide xumea dauka, aurrekontu duina lortzea ikasleak erakartzeko.

Baionak garapena ezagutzen du. Zein dira horren arrazoiak?

Bi elementu nagusi daude azaltzeko. Ikasketa teknologikoak ongi garatu dira IUTn. Hori lortzeko, hitzarmen bat finkatu genuen banketxeekin, eta behar dituzten koardak prestatzen ditugu. Uztartzen daude (Lapurdi). Bigarren elementua da ikasketen ugalketa. Ikasketa batzuk Pauek Baionara ekarri ditugu, Biologia sailean adi-

«Ipar Euskal Herrian ez da egon unibertsitate autonomoaren aldeko aldarrikapenik»

bidez, Doktoretzaraino Baionan bertan egin daiteke orain ikasketa. Ikerketa aipatzen bada, Angeluk ikasketa bereziak aterpetzen ditu, itsas hegiari lotuak nagusiki. Baina kontuan hartu behar da aldaketak emeki burutzen direla.

Zertan daude euskal ikasketak?

Lehenik aipatu nahi dut Frantzia ezagutza txikia duen Iker zentroa. Talde txikia da, baina ospe handia dauka nazioartean. Paueko eta Bordeleko unibertsitateekin batera dihardu lanean. Hizkuntzalartean eta kulturaren inguruko ikasketak egiten dituzte. Etorkizun handia duen saila da, ikerketa den unetik denbora behar delako ezagutza eta ospea lortzeko. Hori lortuta, jendea erakartzeko gaitasun handia dauka. Alta, sail guztietan bezala, ikerketari dagozkion funtsak lau urtero aztertu eta berri-tzen dira.

Garapen ardatz berri bat ere aipatu nahi dut, mugaz gaindikoa. Harreman onak ditugu Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin ere bai. Ikasleen trukea gauza naturala da, baina azpimarratu nahi nuke errazagoa dela Ipar Euskal Herriko ikasle bat Hego Euskal Herriara joatea kontrakoa baino. Han frantsesak gibela egin du

«Paristik banatzen dira irakasle postuak, eta hori traba bat da gure beharrak asetzeko»

eta zailtasunak dituzte hona etortzeko. Baina zailtasun handiena ez da hizkuntza, diplomen baliokidetzak baizik. Bertze arazo bat da Frantziak inposatzen duen paperkeria. Zailtasun horiek kendu behar dira erditik unibertsitatea garatzeko.

Euskal ikasketetan 100 ikasle inguru daude orotara. Zergatik horren emaitza mugatua?

Egia da sail hertsia dela hizkuntza edo euskal kultura. Alta, bertze ikasketa batzuetan ere euskara eskaintzen dugu, baina ikasleek ez dute hartzen. Nahiago dute ingelese edo gaztelania ikasi.

Hizkuntza politika osotasunean abian ezartzen bada, eskari handia izanen da. Aztertu duzue zein izan daitekeen horren garapena?

Irakasleak beharko dira.

Eta badaude?

Ez, ez daude. Oposizioak badaude, baina Frantzia mailan burutzen direnez, euskara ez da kontuan hartzen. Paristik banatzen dira postuak, eta hori traba bat da gure beharrak asetzeko. Elkarlana bultzatu behar dugu EAeko egiturekin, irakasleen prestakuntzan bereziki. Maila horretan ongi neurtu behar dira helburuak, haien arabera osatu beharko delako eskaintza, eta irakaslerik ez badago, ez dago

«Euro-institutua garapen ardatz garrantzitsua izanen da enpresaburuentzat, beharrari ihardesten baitio»

ikasketarik. Erabaki politikoa da, baliabideak behar dituen.

Berezko unibertsitatearen eskaria aldarrikapen nagusia da Ipar Euskal Herrian. Zer deritazu?

Bertze galdera batekin erantzuten dut. Nor dago prest irakasle bat eta hiru ikasle dituen unibertsitatea ordaintzeko? Norbait prest badago, ni aldekoa naiz. Dirua badago, dena da posible, prestakuntza guztiak ematea ere bai. Baina ez dago dirurik, eta hori da errealitatea. Dagoeneko atxikitzen ditugu ikasle gutxi dituzten sailak. Baina ez naiz teilatuan ikurrin bat duen unibertsitatearen aldekoa. Ipar Euskal Herrian goi mailako ikasketak behar dira. Enpresek eskari zehatzak dituzte, eta horiek asetu behar dira. Eta gogoratu ikasle gehienak kanpotik datozela. Gizarte eskaria asetu, eskaintza zabaldu behar du unibertsitateak, eta horretarako polo handiak behar dira. Baiona kulturaren bidegurutzea da, ez du soilik euskal nortasuna erakusten. Eta karrikan euskarak ez du erabilera sozialik. Unibertsitatearen diseinua egiteko errealitatea ezagutu behar da, zenbat ikasle dagoen, zein den lan merkatua eta nolako beharrak dituen. Eta orain artean Ipar Euskal Herrian ez da egon unibertsitate autonomoaren aldeko aldarrikapenik. Ulertzen dut Brissonnek hizkuntza politika bultzatu nahi izatea, baina, nire ustez, proposamena hertsiegia da.

Azaroaren 23an Montoryko unibertsitate eremua irekiko duzue. Baiona, Angelu eta Bidarte artean barreiatzen da eskaintza. Ez ote du ikasguneen barreiatzeak unibertsitateak ahultzen?

Hiru eratan lortzen du unibertsitateak ezagutza. Lehenik, campus bakarra ukanez, lurralde mailan batasuna ukanik. Deitoragarria da eskaintza ez biltzea gune bakar batean, baina erabaki politikoa izan da hori. Barreiatketaren bidez, hauskor bihurtzen da unibertsitatea. Datorren urtean Baiona Ttipiko Jauregiberrira doa unibertsitatea eta 1.800-2.000 ikasle izanen dira bertan. Montorykoan 700-800 ikasle biltzea espero dugu.

Euro-institutuaren sorrera aipatu duzue. Zein dira unibertsitatearen helburuak egitasmo hori plantan ematean?

Kultura eta bizimodu ezberdinen bidegurutzean gaude. Europak etengabe arau berriak sortzen ditu, enpresaburuek eta lurralde egitureko langileek berek ulertzen ez dituztenak. Arazo hori gainditzeko lortu nahi dugu. Euro-institutu horretan baliabideak emango zaizkie teknikari eta enpresaburuei, arauak ulertu eta beren xedea gauzatzeko. Ez du lanpostu anitz sortuko, baina duen eragina handia da. Guk duen arazoa denetan daukate, eta prestakuntza hori eskaintzen duen bakarrak bagara, pentsatzeko da erreferentzia bihurtuko gara. Zalantzarik gabe, Euro-institutua garapen ardatz garrantzitsua izanen da enpresaburuentzat, beharrari ihardesten baitio.



BERRIA